

Euskaltzaindia

El Mundo del País Vasco, 1991-10-25.

Euskal instituzioen artean berezia dugu Euskaltzaindia. Ez da bakarrik funtsean euskalduna izate bertatik argi egiten duelako, baizik eta gero, sortzetik (1918) hona, eman dituen fruituaz gain sei kantoiko etxe osoa zaintzen jakin duelako. Euskara beraren meritu izatea ere baliteke, eta pozten gaitu honek, baina baita alderdikeriak baztertu eta gure gatazkabideetatik kanpora geratzeko jakinduria gorde duelako ere. Euskaltzaindiak aintzindari jakinak izan ditu: Jose Paulo de Uribarri Galíndez arabarra (1775-1847), Jose Francisco Aizkibel azkoitiarra (1798-1865), Luis Luziano Bonaparte Printzea frantsesa (1813-1891) eta bere akademia Ibiltaria osatzen zuen Jean Duvoisin kapitain lapurarra. Antoine d'Abbadie zuberotar jatorriko irlandarrak ere, Jose Manterola donostiarra, Aristides Artiñano bilbotarra (1840-1911). Sabin Arana abandotarrarekin (1865-1903) Akademia baten beharraz arduratu ziren. Gero, aburu ezberdinetako gizonek landatu zuten zuhaitza, honen lehen enborra izango zen Resurrección María de Azkuek (1864-1951) bi asmo nagusi bideratzen ditu: Hiztegi bat eta euskararen auzia erabakitzeko Akademia, eta bera da 1918an Oñatiko Unibertsitatean sortutako Eusko Ikaskuntzaren eskutik (Arturo Campión -1854-1937- bere ondoan) lehen Euskaltzainburua: Azkue, beraz, gero Ignazio maría Etxaide, Jose María Lojendio, Manuel Lekuona, Luis Villasante eta gaur Jean Haritschelhar. Zuhaitza ez da enborra bakarrik, noski, eta kima eta abar berriak sortzen joan zaizkio; istilutsua ere bai bat, euskara batuaren beharrak sortutakoa (Koldo Mitxelenaren emaitzak argi geratu dira), eta honekin euskalkien beharra, Bilbon gaur amaitzen ari den Dialektologia-ren ikasketa jakintsua, zientziak eta zentzuak eskatzen duten bezala.